Declaración de Bokale y los grupos municipales EH Bildu y PNV

# Bokaleren eta EH Bildu eta EAJ udal taldeen adierazpena

T010100

## Espainiako Auzitegi Gorenak EAEko udaletan euskararen normalizazioa bultzatzeko legearen artikulu batzuk baliogabetu ditu

- Sententzia euskararen normalizazioaren aurkakoa ez ezik, euskal gizartearen eta erakundeen kontrakoa ere bada

Vox alderdi politiko espainiarraren eskariz, EAEko udal legearen dekretutik baliogabetutako artikulu gehienak atzera bota ditu Espainiako Auzitegi Gorenak eta, euskara lehenetsiz gero, hizkuntzen koofizialtasuna urratzen dela ebatzi du sententzian. 9.2 artikulua, 11. artikuluaren lehengo atala, 12. artikulua eta 17.1 artikulua baliogabetu ditu, baita beste zenbait artikuluren edukiak ere. Eta, Gorenak esan duenez, 12. artikulua bakarrik da salbatzeko modukoa.

Udalentzat mugarria izan zen EAEko Udal Legea elebitasun simetrikoa gainditzeko eta euskara lehenesteko aukera eman zuelako. Gorenaren epaiaren arabera, ordea, herrialde batean hizkuntza koofizialak daudenean batek ezin du «lehentasunik» izan bestearen gainean. Horiek horrela, hizkuntzen arteko «desorekak» eragotzi egin behar dira.

Larria da epaia, euskararen normalizazioaren kontra ez ezik, euskal gizartearen borondatearen eta euskal erakundeen kontrako epaia delako. Izan ere, Eusko Legebiltzarrean gehiengo oso zabalez onartutako araudia eta Eusko Jaurlaritzak garatutakoa da Espainiako Auzitegi Gorenak bere sententzian baliogabetzea erabaki duena.

Hori dela-eta, Pasaiako Euskararen Aholku Batzordeak, Bokalek, eta Pasaiako EH Bildu eta EAJ udal taldeek, erakunde, eragile politiko, sozial eta herritarrei dei egiten diegu irmo adieraz dezaten oldarraldiaren agerpen bortitz honen aurka daudela, eta bakoitzak dagokion lekutik bultza dezala euskararen normalizazio prozesua, horixe baita justizia sozialean eta gizarte kohesioan sakontzeko bidea.

Hortaz, dei egiten diegu pasaitarrei epai hori

## El Tribunal Supremo español anula algunos artículos de la ley para impulsar la normalización del euskera en los ayuntamientos vascos

- La sentencia es contra la normalización del euskera y contra la sociedad e instituciones vascas

A instancia del partido político español Vox, el Tribunal Supremo español ha rechazado la mayor parte de los artículos anulados del Decreto de la Ley Municipal de Euskadi y ha resuelto mediante sentencia que si se prioriza el euskera, se vulnera la cooficialidad de las lenguas. Anula el artículo 9.2, el primer apartado del artículo 11, el artículo 12 y el artículo 17.1, así como los contenidos de otros artículos. Y, como dicta el Supremo, sólo es salvable el artículo 12.

La Ley Municipal de Euskadi supuso un hito para los ayuntamientos, ya que permitió superar el bilingüismo simétrico y priorizar el euskera. Sin embargo, según la sentencia del Supremo, cuando en un país hay lenguas cooficiales, una no puede tener "preferencia" sobre la otra. Por ello, deben evitarse los "desequilibrios" entre las lenguas.

La sentencia es grave porque no sólo es contraria a la normalización del euskera, sino también a la voluntad de la sociedad vasca y a las instituciones vascas. De hecho, el Tribunal Supremo español ha decidido anular una norma aprobada por una amplia mayoría en el Parlamento Vasco y desarrollada por el Gobierno Vasco.

Por ello, el Consejo Asesor del Euskera de Pasaia, Bokale, junto con los grupos municipales de Pasaia EH Bildu y PNV, hacemos un llamamiento a instituciones, agentes políticos, sociales y ciudadanía para que expresen su firme oposición a esta brusca ofensiva, y para que cada cual impulse desde donde le corresponda el proceso de normalización del euskera como vía para profundizar en la justicia social y la cohesión social.

Por lo tanto, pedimos a la ciudadanía pasaitarra

salatzeko eta euskaldunon eskubideen alde egiteko kalera atera daitezen. Eta horretarako, UEMAk Euskararekin bat lelopean egin duen deialdiarekin bat egitera deitzen ditugu Pasaiako eragileak eta herritarrak.

Elkarretaratzea **uztailaren 19an egingo da 12:00etan Lezoko udaletxe aurrean**.

salir a la calle a que denuncie esta sentencia y apueste por los derechos de las/los euskaldunes. Y para ello, llamamos a las/los agentes y a la ciudadanía de Pasaia a sumarse a la convocatoria que ha realizado UEMA bajo el lema “Euskararekin bat”.

La concentración tendrá lugar el día **19 de julio a las 12:00 horas en frente del Ayuntamiento de Lezo**.

Pasaian, 2025eko uztailaren 18an